

andramaixak • Aretxabaleta

INMA MIGEL UDAL KULTURA TEKNIKARIA

«Herriko jairik
jendetsu eta onenak
dira andramaixak»

Itxaro Artola | ARETXABALETA

Inor gutxi ezagutuko ditu Aretxabaletako jaiak Inma Migelek bezain ondo. Izan ere, 16 urte daramatza udal kultur teknika postutik herriko festa nagusiak antolatzen.

■ Garaiekin batera jaiak ere aldatuko ziren, ezta?

Gorabeherak egon dira, baina nire ustez hobetuz joan dira, gaur egun programa oso potentia egiten dugu eta. Irizpide gisa, umeentzako ekintzak bermatzea daukagu, baina horrez gain, jende guztiak disfrutatze-ko moduko egitaraua egiten saiatzen gara, festak herri guztiarenak dira eta.

■ Eta jendearen parte-hartzeari dagokionez?

Hor ere aldaketak egon dira. Gogoratzen naiz hasieran koadrilek parte-hartze handia izaten zutela, baina gero, hamar bat urtean, nahiko geldi egon ziren. Orduan, duela hiru bat urte, giro hura pizten saiatu ginen, eta uste dut lortu dugula.

■ Eta festak antolatzeak jai-batzordean bustitzen al dira aretxabaletarrak?

Hor ere zikloak egoten dira. Berrehun bat koadrila ditugu zerrendaturik eta gutun bana bidaltzen diegu guztiei parte hartzerara gonbidatuz. Gutxi gorabehera %10 agertzen dira. Egia esan, nahiko jende finkoa daukagu eta horiek dira benetan lan egiten dutenak. Eta aukera honetaz baliatuko naiz horiei guztiei eskerrak emateko. Zeren euren inplikazio barik neronekin egin beharko nuke lan guztia. Gainera, egitaraurako ekarpenak egiteaz gain, jai egunetan ere hor egoten dira; koadri-

len eguneko jokoak, adibidez, eurek antolatzen dituzte. Benetan bustitzen den jendea da.

■ Berrikuntzarik izango da aurten?

Egitura aldetik aurreko urteetako ildo beretik doa. Dena dela, bada aipatzeko moduko proposamenik. Albokaren kontzertua, trialsin erakusketa...

■ Herri bazkaria ere antolatzen duzue, eta doan, gainera. Udaletxe aberatsa ala eskuzabala duzue?

Urteak dira erabaki gurela beste ekintza batzuk doan egiten diren bezala denontzako herri bazkaria ere egin zitekeela. Orduan, paella erraldoia egitea bururatu zitzaigun. Hasieran, Granadatik etortzen ziren prestatzera, baina azken urteetan Kantabriako batzuek egiten dute. 500 lagunendako paella egiten dute, eta baita portuetako tea ere, han tipikoa ei den edaria, oso ona digestioa egiteko. Belarrez eginga dago, baina gogor samarra da.

■ Bestalde, egun bakoitzari kutsu jakin bat ematen saiatzen zarete, ezta?

Bai. 15eko egitarauari ofizialtasun kutsua ematen saiatzen gara. Azken batean, Andra Mari eguna da! Hortaz, banda kontzertua, suzko erroberak... egoten dira. 16an, oster, gazteen-atzako ekintzak programatzen ditugu. Rock kontzertua, trialsin erakusketa, pilota partidak,



KOADRILEN EGUNA

«Egun horretan denok ibiltzen gara neurrigabe, eta guztiendako ekintzak programatzen ditugu»

JAI BATZORDEA

«Eskerrak eman behar dizkiet batzordekideei, lan egiteko orduan benetan bustitzen direlako»

sokamuturra... Eta 17an denondako ekintzak izaten dira. Koadrilen eguna denez, denok ibiltzen baikara neurriz kanpo.

■ Eta gaurko eguna?

Gaurkoa lasaiagoa izaten da, motorrak berotzen joateko.

■ Abuztua izatean, aretxabaletar askok alde egiten dute. Zer deritzozu?

Egia da batzuetan ezustekoak hartzen dituzula. Izugarritzko ahalegina egiten duzu ekintzak prestatzen, eta gero ez

dago inor. Dena den, azken urteetan igarri dut jendea festarako bueltan etortzen dela.

Gainera, egoten garenak behintzat parte hartzeko prest izaten gara. Izan ere, iraileko San Migeletan berez jende gehiago egon arren, gutxiago irteten da kalera. Andramaxetan, oster, gaudenak disfrutatzekeo jarrerarekin egoten gara. Azken batean, oporretan gaude, beste lasaitasun batekin, eta bizitzaz gozatze-ko gogotsuago. Niretzat, behintzat, herriko jairik onenak dira andramaixak.

MAPFRE
ASEGURUAK
Errekabarren, 3
Tel.: 943 71 17 34
ARETXABALETA

Nafarroa etorbidea, 9
Tel.: 943 71 24 25
Faxa: 943 71 22 98
20500
ARRASATE

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Santa Krutz, 25
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 21 19
20550
ARETXABALETA

Eraixozu
minari !!
loramendi
euskera elkarte

EGUZKIGRAF
INPRIMATEGIA
• LIBURUAK • ALDIZKARIAK
• KATALOGOAK
• MERKATAL INPRESOAK
• FILMATZE ZERBITZUA
Basabe poligonoa - Tel.: 943 79 18 44
Faxa: 943 79 29 41 - ARETXABALETA

URBALTZ TABERNA
Jaiak bai borroka ere bai
Mitarte, 19 - ARETXABALETA

ZARAIA
taberna
Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura
Araba etorb.
ARETXABALETA
☎ 943 79 88 95

IOSU
HARATEGIA
TXARKUTERIA ETA
PLATER PRESTATUAK
MITARTE, 1 • Tel.: 943 77 03 08
ARETXABALETA (Gipuzkoa)